



2012KO APIRILAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko apirilaren hogeita seian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Mardrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, esaten du eguneko gai zerrendatik gai bat kendu egin duela, aztertzeko denbora gehiago behar dela iritzita. Kanpora uzten den gai hori Iturgaitzagako urbanizazio proiektua, lehen fasearen kontratazio espedientea onartzeari buruzkoa da.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko martxoaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KIROLDEGIAREN BIRMOLDAKETA 4. FASEAREN 8. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Eva Caceres arkitektoa eta Nagore Lasa arkitekto teknikoek 4. faseko zortzigarren obra-egiaztagiria luzatu dute. 4. faseko 8. obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMotakoa (157.470,55 €) da. Lan hauek INGESLAN, S.L.U. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Albisu zinegotziak (EAJ) argibideak eskatzen ditu obra-egiaztagiriaren laburpen orrian agertzen den "aurrekontuz kanpoko hainbat" kapituluari dagokionean.

Alkateak erantzuten dio udal arkitekto teknikoak emango dizkiola hurrengo hirigintza batzordearen bilkuran.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du obra-egiaztagiria onartuko dutela baina ematekotan gelditu den esplikazio horren barruan.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, hirigintza obra esta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen 4. faseko zortzigarren (8.) obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beti mantentzen duten jarrera mantenduz, kreditu aldaketa honen alde bozkatuko dutela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek ere alde bozkatuko dutela.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

| Kapitulua | Izena | Gehikuntzak |
|----------------------------|--|--------------------|
| II | Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa | 62.784,29 € |
| VI | Inbertsio errealak | 25.000,00 € |
| GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | 87.784,29 € |



FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|----------------|-------------------------|--------------------|
| VII | Kapital transferentziak | 18.981,00 € |
| VIII | Finantza aktiboak | 68.803,29 € |
| GUZTIRA | | 87.784,29 € |

Bigarren.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamabi minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

